

**2023/2024 IKASTURTERAKO ZERBITZU-EGINKIZUNEN LUZAPEN-PROZESUEI ETA DEIALDI ESPEZIFIKO BERRIARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA**

Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan eta Jaurlaritza hau gidatzen duen “Euskadi, Auzolana” printzipioari leial izanik, kalitatezko enplegu publikoa sustatu nahi du eta euskal hezkuntza-sistemako irakasleei egonkortasun handiagoa eman, egonkortasun horrek gure gazteen eta, oro har, gure herritarren prestakuntza eta hezkuntza hobetzen lagunduko duelakoan.

Alde horretatik, beharrezkoa da sakon berrikustea lanpostuak salbuespenez betetzeko mekanismoak eta irizpideak, zerbitzu-eginkizunen bidez, baita horien luzapenen bidez ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezaugarri bereziak dituzten lanpostuak edo eginkizunak bete behar direnean, berriazko deialdiak egin ahal izango dira zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko. Deialdi horietan, zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetarako luzatzeko aukera jaso ahal izango da, egindako lanaren balorazio positiboa egin ondoren.

Gainera, artikulua horrek berak adierazten du deialdi espezifikoetan bitarteko funtzionarioen parte-hartzea jaso ahal izango dela. Eta, esleipendun suertatuz gero, langile horiei bitarteko izendapena egingo zaie ikasturte horretarako, aurreko paragrafoan aurreikusitako luzapen-aukerariekin.

**NOTA INFORMATIVA EN RELACIÓN A LOS PROCESOS DE PRÓRROGA Y NUEVA CONVOCATORIA ESPECÍFICA DE COMISIONES DE SERVICIO PARA EL CURSO 2023/2024**

El Departamento de Educación, en el ámbito de su competencia y fiel al principio de «Euskadi, Bien Común» que guía a este Gobierno, pretende impulsar el empleo público de calidad y dotar de mayor estabilidad al profesorado del sistema educativo vasco, en la confianza de que dicha estabilidad contribuirá a la mejora de la formación y de la educación de nuestros jóvenes y nuestra ciudadanía, en general.

En este sentido, se hace necesario realizar una revisión en profundidad de los mecanismos y criterios de provisión excepcional de puestos de trabajo a través de la adjudicación de comisiones de servicio, así como de sus respectivas prórrogas.

De conformidad con lo establecido en el artículo 12 del Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuando sea preciso cubrir puestos de trabajo o funciones en los que concurren características singulares, podrán realizarse convocatorias específicas para su cobertura mediante comisión de servicios. Estas convocatorias podrán contemplar la posibilidad de prórroga de la comisión de servicios para sucesivos cursos previa valoración positiva del trabajo desempeñado.

Además, este mismo artículo indica que en las convocatorias específicas podrá contemplarse la participación del personal funcionario interino. Y, en el caso de que resulte adjudicatario este personal, se le hará un nombramiento de interinidad para el curso en cuestión, sin perjuicio de la posibilidad de prórroga prevista en el apartado anterior.



Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 106. artikulua, zerbitzu-eginkizunei dagokienez, xedatzen du funtzionarioak, premia larria eta atzeraezina duten kasuetan, zerbitzu-eginkizunetan esleitu ahal izango direla, lanpostua gordeta, beren kidegoko, eskalako, titulazio-baldintzarik gabeko lanbide-taldeko eta lanbide-taldeko lanpostuetan aritzeko, edo atxikita dauden lanpostuaren eginkizun espezifikoek bestelako eginkizunak betetzeko.

Beraz, eta Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari emandako eskumenei jarraiki, eta arlo bakoitzean eskumena duten zuzendaritzekin koordinatuta, **karrerako funtzionarioen zerbitzu-eginkizunak soilik luzatzeko erabakia hartu da**, ezaugarri bereziak dituzten lanpostuetarako edo Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzu bati atxikita daudenetarako, betiere zerbitzu-eginkizuna eragin zuen beharrak irauten badu.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera emandako zerbitzu-eginkizunen luzapenek betetzen ez dituzten lanpostuak **zerbitzu-eginkizun espezifikoek beste deialdi baten xede izango dira**. Deialdi horretan interesa duten karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak parte hartu ahal izango dute.

Zerbitzu-eginkizun berri horiek deialdiaren xede diren lanpostuei dagozkien merezimenduen baremazioaren arabera esleituko dira.

Deialdi horretan karrerako funtzionarioek eskainitako plaza betetzea aurreikusiko da; hala ere, beharrezko baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioei lanpostuak esleitu ondoren, eta lanpostu hutsak izaten jarraitzen badute, eskaera aurkeztu duten eta deialdian

Asimismo, el artículo 106 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, dispone, en relación con las comisiones de servicio, que el personal funcionario, en los casos de urgente e inaplazable necesidad, podrá ser asignado en comisión de servicios, con reserva de puesto de trabajo, al desempeño de puestos propios de su cuerpo, escala, agrupación profesional sin requisito de titulación, grupo profesional, o a la realización de funciones distintas de las específicas del puesto al que estén adscritos.

Por tanto, y en virtud de las competencias conferidas a la Dirección de Gestión de Personal del Departamento de Educación, en coordinación con las respectivas Direcciones competentes por razón de materia, **se ha tomado la decisión de prorrogar única y exclusivamente las comisiones de servicio del personal funcionario de carrera**, para aquellos puestos en los que concurren características singulares o se encuentren adscritos a un Servicio de Investigación y Apoyo a la Docencia, siempre y cuando persista la necesidad que motivó la comisión de servicios.

Aquellos puestos que no sean cubiertos por las prórrogas de comisiones de servicio concedidas en virtud de lo indicado en el párrafo anterior, serán **objeto de una nueva convocatoria de comisión de servicios específica**, en la que podrá concurrir tanto el personal funcionario de carrera como el personal funcionario interino interesado.

Estas nuevas comisiones de servicio se adjudicarán en virtud de la baremación de los méritos referidos a los puestos objeto de la convocatoria.

En la antedicha convocatoria se preverá la cobertura de las plazas ofertadas por funcionarios de carrera; si bien se contemplará la posibilidad de que, una vez adjudicados los puestos al personal funcionario de carrera que cumpla con los requisitos necesarios, y para el supuesto en que continúen existiendo puestos vacantes, puedan



eskatutakoa betetzen duten bitarteko langileek betetzeko aukera izango dute.

Duten berezitasuna dela eta, tratamendu bereizia emango zaie emandako zerbitzu-eginkizunen luzapenek betetzen ez dituzten lanpostuei, honako zentro edo programa hauetan: Eskolatzeko Programa Osagarriak, Zumarragako Ibaiondo Zentroa, Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabideteak (IBT) eta Ospitaleko eta etxeko Hezkuntza arretarako eta Arreta terapeutiko-hezigarria.

Ondorioz, enplegu publiko egonkor eta kalitatezkoaren aldeko apustu sendoa egin behar da, lanpostuak betetzeko ohiko mekanismoen bitartez. Ildo horretan, eta egonkortzeko hautaketa-prozesuekin eta 2022ko Lan Eskaintza Publikoaren esparruan garatzen ari diren hautaketa-prozesu arruntekin batera, bitarteko langileek karrerako funtzionarioentzat gordetako eginkizunak ahal den neurrian murriztea da helburua, eta bitartekotasuna izan behar da salbuespena, beharrezana eta premia berariaz justifikatutako arrazoiengatik.

ser cubiertos por personal interino que haya presentado solicitud y cumpla con lo exigido en la convocatoria en cuestión.

Dada su peculiaridad, se dará un tratamiento diferenciado a aquellos puestos que no queden cubiertos por las prórrogas de comisiones de servicio concedidas, en los siguientes centros o programas: Programas Complementarios de Escolarización, Centro Ibaiondo de Zumarraga, Centros de Recursos para la Inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual (CRI) y Atención educativa hospitalaria, domiciliaria y terapéutica educativa.

En conclusión, es necesario realizar una firme apuesta por el empleo público estable y de calidad, a través de los mecanismos de provisión ordinaria de los puestos de trabajo. En este sentido, y acompañando a los procesos selectivos de estabilización y los procesos selectivos ordinarios que se están desarrollando en el marco de la Oferta Pública de Empleo 2022, se busca reducir, en la medida de lo posible, el desempeño de funciones reservadas a personal funcionario de carrera por parte de personal interino, debiendo ser la interinidad la excepción, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 6a  
Vitoria-Gasteiz, 6 de marzo de 2023